

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4978

EBAZPENA, 2024ko urriaren 23a, Langileriaren kudeaketa zuzendariarena; honen bidez, argitara ematen da 2025-2026ko ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan eta urtean zehar egiten diren deialdietako edozein hautatze-prozesutan alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letra zozketaren emaitza.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartu zen. Agindu horrek ezartzen du berdinketa-kasuak konpontzeko irizpidea abizenen eta izenen arabera hurrenkera alfabetikoa izango dela, eta urteroko zozketa baten bidez ebatziko dela zein letratatik hasi.

Halaber, letra horrek zehaztuko du zein hurrenkeraren arabera aukeratuko duten lanpostua ordezkogaiak, hau da, zozketa horretan ateratzen letrak zehaztuko du nor izango den lehen ordezkogai ikasturtean zeharreko deialdietako edozein hautatze-prozesutan.

Zozketa hori 2024ko urriaren 23an egin zen Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren egoitzan. Horregatik guztiarengatik, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea «R» letrak zehaztuko duela nork zein hurrenkera izango duen ordezkogaien zerrendan 2025-2026ko ikasturtean. Letra hori erabiliko da berdinketa-kasuetan. Era berean, letra horrek zehaztuko du zein hurrenkeratan parte hartuko duten izangaiek ikasturtean egiten diren gainerako hautaketa-prozesuetan. Horrela, bada, «R» letrak zehaztuko du nor izango den lehenengoa, abizenen eta izenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 23a.

Langileriaren kudeaketa zuzendaria,
UNAI NIETO MARIJUAN.